

Goierri tarra

340. zenbakia 2008ko maiatzak 2

Aitor eta Igor Esnaola

ZIRRI-ZARRAN TRONTZAREN ERRITMOAN

faktore
KOMUNIKAZIO
GRAFIKOA

↓
Oriamendi, 37 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 088 169
faktore@faktore.net
www.faktore.net

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA
ETA KOMUNIKAZIOA

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04



GoierriHartxo
Goierriko haurren aldizkaria

5. zenbakia
zure esku



Etorkizuneko bertsolariak



GoierriHartxo
340. zenbakia 2008

Loinatz
jaiak
Beasainen

GoierriHartxo

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierriHartxo@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinatz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

GoierriHartxo ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GoierriHartxo

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Inazio Usarralde.

5. Ingurugiro txokoa: Kobazuloetako animaliak.

6. Euskara txukuntzen: Orduak.

8. Errezeta: Iberiar txerri masailak saltsan.

Aholkua: Tratamentu estetikoak.

9. Erreportajea: Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina Ordizian.

12. Elkarrizketa: Iñaki Apalategi 'Zazpi astoren gaine...' bertsotan.

15. Elkarrizketa: Aitor eta Igor Esnaola trontzalariak.

20. Garai batean: Erdi Aroko Igartza eta jabetza aldaketaren errituala.

22. Non zer.

25. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Inazio Usarralde

Auzolana indartzearen alde

Auzolana da, nire ustetan, euskaldunon baliorik preziatuenetakoa. Gaur gure inguruan gehiago ikusten ditugu *aurrena ni, gero ni eta ondoren ere, abal bada, ni* bezalako jarrerak. Ba, auzolanak, hasteko, *gu* du ardatz. Auzolana ez dago ulertzerik talde girotik kanpora. Hori horrela, auzolanak ere antolaketan du bere gakoa. Nola antolatzeko den emankorragoa edo antzuagoa izango da. Gure gurasoei entzun izan dizkiegu auzolanaren inguruan gertatu izan diren makina bat gorabehera: halako baserritarrak beti aurrena bere belarlanak egitea nahi izaten zuela eta gero etxekonekoaren lanak egitea egokitzen zenean beti ezinaren bat gertatzen zitzaieneko kasua. Eta horrelakoak mila.

Halere, auzolana oso aberatsa da giza talde batentzat: denon behar orokorrak zein diren eztabaidatu, adostu eta zerrendatu, lehentasunak jarri eta txandan-txandan aurreikusitako lan guztiak egin. Jakina, auzolana ez da lana bakarrik. Auzolana festarekin ere oso lotuta dago gure sentimenduen kokalekuan. Auzolana bukatutakoan beti festaren bat antolatu ohi zen eta ez jatekorik eta ez edatekorik ez zen faltako. Lana ondo bukatzeak festarako aitakia ekarri izan du euskaldunon artean.

Auzolanak pertsonen arteko harremanak sakontzea ere badakar eta denek balio dute zerbait egiteko. Inor ez dago soberan: nik honetarako ez badut balio beste horretan jar dezaket nire hondar alea. Denentzat beti dago zereginen bat. Eta hori ere ez da gutxi pertsonak sailkatzeko eta bereizteko gero eta joera handiagoa dagoen gizarte honetan. Auzolanak, herriko edo auzoko kide gehienak, bestela

inola ere elkarrengana bilduko ez liratekeenak, elkarren ondoan helburu komun bati begira lanean jartzeko dohaina du. Eta horrek ez al zaizue iruditzen urrearen balioa duela gaur egun?

Eta auzolana bizirik al dago gaur eta hemen? Ni baiezkotan nago eta, gehiago ere izango diren arren, azken boladan gertutik ezagutzea egokitu zaidan hiru adibide edo hiru erakusgarri ipini behar ditut. Lehenbizi, Zerain aipatu behar dut. Harri-garria da ikustea azkeneko 30 bat urtean zer nolako pizturaldia eman dioten zerain-darrek bere herriari. Eta hor ere auzolana izan da gakoa, bertakoek esanda dakit.

Bigarrenik, Gabiria aipatu behar dut. Inbidia sana sentitu nuen lehengo Osinalde bertso sariketaren saioan herriko gazteak hain gazteak ez zirenekin elkarrekin lanean ikusita. Eta Gabirian horrela, bertan eta bertakoekin, antolatu eta prestatzen dituzte dantza ikuskizunak, antzerki emanaldiak, kultur asteak, jaiak...

Honez gero, norbaitek pentsatuko zuen auzolana herri txikietako kontua dela. Niri iruditzen zait auzolanerako erraza-goak edo emanagoak badirela herri txikiak. Horietan ohituta daude gai gehienetan bitarteko gutxirekin etekin handiak ateratzen. Urriago iristen zaie laguntza publikoa. Ohituta daude gutxirekin asko egiten.

Halere, ez nuke esango auzolana herri txikietakoa eta baserri giroko kontua bakarrik denik. Gaur egungo bizimodua hein handi batean kalera begira jarri denean, kalean ere auzolana praktikara eraman daiteke. Esaterako, ikastolako tabernan txanda bat eginez, Lazkaoko jaietan aritu garen moduan. Zortzi festa egunetik batean lan egitea eskatzen digu horrek Lazkaoko gurasooi. Zer da ba hori? Ederra da ekintza horrekin herrian, ikastolaren inguruan, sortzen den mugimendua eta elkarlana. Gaur gaurkoz nekez aurkituko dugu Lazkaon berrehunetik gora herritar, kolore eta jatorri guztietakoak, helburu baten alde arituko diren beste ekimen bat. Auzolana indartu eta zabalduko bagenu gaur egun ditugun arazo askori buelta emango geniekeela iruditzen zait.

*Auzolanak, herriko kide gehienak, bestela
inola ere elkarrengana bilduko ez
liratekeenak, elkarren ondoan helburu komun
bati begira lanean jartzeko dohaina du.*



kutxa

Kobazuloetako animaliak

Gure lurraldea kobazulo eta haitzuloetan aberatsa da bere egitura karstikoarengatik. Hori dela eta kobazuloetako fauna ere oso anitza da eta endemismo ugari ditugu gure lurraldean. Bioespeleologiak ikertzen du kobazuloetako fauna eta hauen oreka oso hauskorra eta urrakorra izanik, ikerketa zehatzetarako bakarrik hartzen dira laginak. Animalia hauetan bi talde bereizi daitezke: kanpokaldearekin harremana dutenak eta barnean isolaturik bizi direnak. Lurreko eta uretako ornogabe ugari osatzen dute fauna hau: zizareak, planaria, nematodo, ehunzangoak, krustazeoak, moluskoak, pseudoeskorpioak, opilioiak, armiarmak, akaro eta kakalardoak.

Kobazuloaren barnean eta kanpoan bizi diren ugaztun aipagarrienak Xaguzarrak dira. Kiropteroen taldea osatzen dute (quiros=eskua, ptero=hegoa). Euskal Herria xaguzarretan aberatsa da, 22 espezie dauka.

Kobazulo barrenean isolaturik bizi diren animaliak troglobioak deritzo. Haitzuloetako animalia arrunt edo troglobio gehienak antzinako faunetatik datoz, hau da, fauna tropikal eta azpitropikalak ziren. Tertiarioan



gure lurraldea baso tropikala zen. Hurbileneko ahaideak lur azaletik desagertuak daude dagoeneko eta beraz benetako "fossil bizidun"tzat jo daitezke, hau da, beste garai batzuetako erlikiak dira, gaur egungo haitzuloe-tan bizirik iraun eta eboluzionatzea lortu dutenak.

Izarraitz, Aralar, Aizkorri edo Ernioko mendi karstikoetan kokatzen dira bizidun hauek, aipaturiko kobazulo eta mesohaitzuloe-tan (0,1-20 zentimetroko diametroko bideak). Bertako giroa hezetasun handikoa da, iluntasun osoa. Erreaktibitate naturala, CO2 kontzentrazio eta gasen nahasketa altuak izanik eta oxigeno gutxi.

Troglobioak bere ingurura oso ondo egokiturik daude, hori dela eta, Tro-

globioak animaliaitsuak dira eta pigmentorik gabekoak. Gorputza eta apendizak luzeak dituzte. Metabolismo murrizta dute bere bizi erritmoak motelak dira, ugalketa tasa baxuak eta bizitza luzea dutelarik. Zentzumen organo garatuenak kimiohartzailak eta ukimena dira, iluntasunean irauteko aproposenak.

Aranzadiko espeleologo ikerlarien arabera, espezie ugari gainera desagertzeko arriskuan daude eta fauna berezi honen beherapena ematen ari da. Baldintza zehatzetan bizi direlarik kutsadurarekiko oso sentikorrak dira eta lurrazalean ematen diren kalteak edo aldaketek lurrazpian eragiten dute. Baliabideen eskasiak eta Administrazio publikoaren utzikeria medio, troglobio espezien ikerketa partziala da. Honen ondorioz espezieak desagertu daitezke ezagutu baino lehen. Galan zientzialariaren hitzetan beharrezkoak dira babes neurriak.

Bestalde, lehen aipatutako bezala, batzuek Euskal Herrikoak dira soil-soilik, eta haietako asko Gipuzkoako haitzulo batean edo haitzulo bakan batzuetan baino ez dira ezagunak. Zientziarako aurkitutako hainbat taxa berrien aurkuntzak ederki erakusten du Gipuzkoako haitzuloetako faunaren garrantzia norainokoa den, eta ondoko kolepteroak hitz hauen erakusgarri dira: Hydraphaenos galani, Aranzadiella leizola eta Kobiella galani.

Koro Irazustabarrena
(Informazio iturria Aranzadi zientzia elkarte)

JAKIN BEHARREKOAK

Babesturiko itsasgunerik handiena Kiribatin. Ozeano Bareko uharte estatua Phoenix Islands Protected Area izendatu dute. Italia, Suiza eta Austria baita duten azalerakoa da babestutako gunea. bertan koralezko 8 atoloi eta bi arrezife sistema bizi dira.

Egur hila, erreka bizia. azken hamarkadetakoko ikerketak erakutsi dute ibilguetako egur hilak zuzenean eragiten diola erreken osasunari. ura, materia organikoa eta sedimentuak atxikitzen ditu. ubidea eta ertzak egonkotzen ditu. habitat garrantzitsuak eskeintzen ditu. janaria ere bada eta ornogabeen bizitzikloa mantentzen du, babeslekua da eta uraren kalitatea hobetu egiten du. karbonoa ere gordetzen du.. ibar basoak garrantzitsuak dira bizirik eta zuhaitz hilak ere bai.

XX. mendean ur kontsumoa sei bider handitu zen. Ameriketako estatu batueta 380 l. per capita egunean, Alemanian 129 l. xahutzen bada garapen bidean dauden herrialdeetan 20-30 l. per capita egunean nahikoa dela onartzen da. www.un.org/spanish/waterforlifedecade/factsheet.html.

LIBURUA

"Anuario del habitat ecológico" Ed. Ecohabitar, Teruel 2007. oinarritzko informazioa eraintzuzko gutxiago kutsatzeko, eraginkorragoak izateko eta etxea osasuntsua eta natural egiteko.

Zientziarako aurkitutako hainbat

taxa berrien aurkikuntzak ederki

erakusten du Gipuzkoako

haitzuloetako faunaren garrantzia

norainokoa den.

Orduak

Maizpide
euskaltegia

Nola demontre idatzi behar ditugu orduak?

Noiz '-etan' eta noiz '-retan'?

"R" hori **hiru** eta **lau** hitzekin besterik ez dugu erabiliko. Gainontzeko zenbakiekin ez dugu erabili behar (nahiz eta Goierrin aspalditxotik erabiltzeko joera dugun).

✓ *Hiruretan, lauretan.*

✓ *Seietan (*seiretan), zazpietan (*zazpiretan), zortzietan (*zortziretan).*

'Eta erdiak' ala 't'erdia'?

Euskaltzaindiak lehenengoa erabiltzeko gomendioa egin zuenez, apostrofo izeneko "goiko koma" zakarrontzira bota beharko dugu aurrerantzean.

✓ *Ordu bi eta erdietan izango da bazkaria (zuzen).*

✗ *Ordubi t'erdietan izango da bazkaria (oker).*

"Ordubata" ala 'ordu bata'?

Bada, bigarrena!

✓ *Ordu bata zen Marianorekin topatu ginenean... eta ordu biak elkar agurtu genuenean (zuzen).*

✗ **Ordubata zen Marianorekin topatu ginenean... eta ordubiak elkar agurtu genuenean (oker).*

'Gutxi' ala 'gutxiago'?

Euskaltzaindiak biak onartzen dituen arren, lehenengoa da erabiliena.

✓ *Hamaikak bost gutxi dira (edo: hamaikak bost gutxiago dira).*

Deklinatzeko unean, horrela erabili behar dugu:

✓ *Hamaikak bost gutxitan (edo: gutxiagotan) izan zen istripua (zuzen).*

✗ **Hamaikak bost gutxian izan zen istripua (oker).*



Goizeko hamarretarako
zezena ukuiluan izango
genuela agindu zigun,
bada, nagusiak...



Non ote da zezena? Ilargian galduta, akaso?

Nola deklinatu behar ditugu orduak eta minutuak?

Orduak

Beti pluralean (salbuespena "ordu bata" izango da).

✓ *Ordu batetik seietara hondartzan egongo gara (zuzen).*

✓ *Hamabietatik ordu batera klasea izango dugu (zuzen).*

✓ *Ordu batean, ez; ordu bietan izango da bazkaria (zuzen).*

Eta zenbaki bidez? Bada, modu berean!

✓ *01:00etik 08:00etara ez deitu telefonoz, mesedez! (zuzen).*

✓ *13:00etatik 15:00etara ez da klaserik izango (zuzen).*

✓ *06:00etan jotzen du egunero nire iratzargailuak (zuzen).*

Minutuak

Beti singularrean idatziko ditugu (letraz nahiz zenbaki bidez). Erreparatu adibideei:

Letrak

Goizeko ordu biak eta hogeita hamaikan

Zenbakiak

02:31n

Goizeko ordu bata eta hemeretzi

01:19an

Arratsaldeko laurak eta hogeita hamabostean

16:35ean

'Laurdenak' eta 'erdiak'

Laurdenak

Bi aukera izango ditugu:

✓ *Hiru eta laurdenak dira (zuzen).*

✓ *Hirurak eta laurden dira (zuzen). Goierrin azken hau erabili dugu betitik.*

Nola deklinatu?

✓ *Ordu bi eta laurdenetan izango da bazkaria (zuzen).*

Erdiak

✓ *Lau eta erdiak dira (zuzen).*

✓ *Zazpi eta erdietan izango da afari-merienda (zuzen).*

Eta zenbaki bidez adierazten dugunean, nola deklinatu beharko dugu? Bada, singularrean!

Letrak

Goizeko ordu biak eta hamabostean

Zenbakiak

02:15ean

Goizeko ordu bata eta hogeita hamar

01:30ean

Arratsaldeko laurak eta berrogeita bostean

16:45ean

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Eguerdiko ordubetetatik aurrera etxean izango naiz.
2. Seiretan izango da osaba Manuelen hileta-elizkizuna.
3. Duela urte batzuk eguerdiko hamabietan "angelus" a izaten zen pilota-partida guztietan.
4. Arratsaldeko seiak eta berrogeita hamabostean izan zen tiroketa.
5. 18:52an iritsiko da geltokira Irunera eramango gaituen tren.

OHARRA: Lehenengoan, *ordu batetik* behar du; Bigarrena, *seietan*; Hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira..

nazaretzentroa

N4

JARDUNALDI IREKIAK

DATAK **Apirilak 18-19**

18:00 Ostirala

ORDUTEGIA 11:00 Larunbata

Batxilergoa

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak	Ziklo Ertainak
■ Administrazioa eta Finantzak	■ Administrazio-Kudeaketa
■ Informatika Sistemen Administrazioa	■ Merkataritza
■ Informatika Aplikazioen Garapena	■ Sistema Informatikoen Ustiapena
■ Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	
■ Nazioarteko Merkataritza	
■ Idazkaritza	

Masterrak

- Aplikazio Informatikoen Garapenean Masterra

Ikasgaiak euskaraz, gaztelaraz eta ingeleraz ematen dira

Aldakonea, 36 · B° Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Garbiñe Garmendia
Etxe Zuri jatetxea
Olaberria

Osagaiak:

- Kilo bat masail edo karrillera.
- Tipula.
- Porrua.
- Azenarioa.
- Olia.
- Ardoa.

Patata purea egiteko:

- Patata.
- Ura.
- Esnea.
- Gurina.
- Gatza.

Batetik, txerri masailak edo karrillerak garbitu eta zartagian gorritu.

Bestetik, barazkiak jarri kazuela batean poliki-poliki egiten. Pixka bat samurtu dirnean, haragia bota gainera eta utzi barazkiak egin arte.

Ondoren, ardo beltza bota, dextente, eta ur pixka bat ere bai. Utzi egiten.

Haragia bigundu denean, atera eta saltsa turmixe-

an pasatu. Berririo irakin saltsa eta jarri gatz puntuan.

Haragia egiten ari den bitartean, patata purea egingo dugu. Patata pixka bat jarriko dugu ur pixka batekin. Esnea, gurina eta gatza bota eta turmixa pasatu.

Zerbitzatzeko: erditik ebaki masailak, berotu saltsarekin eta ondoan, patata purea duela, plateren jarri.

Tratamentu estetikoak

AHOLKUA

Denborarekin, gaur egungo gizartean, estetikaren sektoreak gero eta garrantzia handiagoa hartu du. Hori dela eta, ez da harritzekoa, zenbait zentroetara gero eta jende gehiago joatea.

Tratamendurik aurreratuenak

Lan sistema honi esker, kasu bakoitza aztertzeko prest gaude, bezeroei emaitzarik onenak lortzeko tratamendu pertsonalizatuak egin eta eskainiz. Horretarako espezialistak protokoloa zehazten saiatzen dira (beti, emaitzarik onena ateratzen,

kosmetikarekin eta erabiltzen dugun teknologiarekin). Dena den, lan egiten dugun maila handiko kosmetika etxeek sortutako tratamenduek eskaintzen dituzten onurez ere baliatzen gara.

Aparatologiaren aldetik berritu egiten gara eta beti sektoreko azkeneko aurrerapenetan egunean egoten saiatzen gara. Adibidez, gure zentroan aurki dezakezuen azkeneko mekanismoa, birsortze irratifrekuentzi deritzona da, "edertasunerako eta zentzuentzako berrikuntza".

Beauty Care System tratamendua

- Aurpegiko tratamenduak, biguntasunetarako, poltsetarako, begizuloetarako, antiaging, espresio lineetarako eta kokosperako.
- Gorputz tratamenduak, zelulitiaren aurkakoak, adipoitate zehatzetarako, sendotze efektua, bularrak, hanka nekatuak, ipurmasailak eta estriak.
- Aldakortasuna tratamenduan: kirurgiaren aurreko eta ondorengo tratamenduak, erditze ondorengoak, hiper eta hipo pigmentazioa eta drenatze linfatikoa.



Josune Eskisabel
Josune estetika zentroa
Ordizia



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



e txekin

www.zugaztibi.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 5 behe

ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



2 **007**ko errenta aitortpena egiteko garaia iritsi da eta Ordiziako Euskara Zerbitzuak, euskaraz egitera gonbidatu ditu herritarrek. 'Errenta aitortpena euskaraz' kanpaina jarri du aurten ere

martxan eta herriko finantza erakunde eta gestorietan bideak jarriko zaizkie zergadunei. Gero eta gehiago dira errenta aitortpena euskaraz egiten dutenak, baina gaztelaniaz egiten dutenak gehiago.

Ordiziako Udaleko euskara zerbitzuak

errenta aitortpena euskaraz egitera

gonbidatu nahi zaitu



Ordiziako Udala



Urtero bezala, ogasunarekin dugun obligazioa betetzea dagokigu, 2007. urteari dagokion errenta aitortpena egiteko garaia baita. Ekainaren 25era arte dago errenta aitortpena egiteko aukera.

Gai honen harira, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, kanpaina berezia jarria du aurten ere martxan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) baitan: 'Errenta Aitortpena Euskaraz'. Herritarrek errenta aitortpena ere euskaraz egitera bultzatzea du helburu Udalak.

Zazpi bulegotan

Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak, errenta aitortpena egiteko garaia zabaldu orduko, honakoa galdetu zuen herriko finantza-entitate eta gestorietan: ea errenta aitortpena euskaraz egiteko aukera eskainiko ote zieten bezeroei. Ondorengo finantza entitate eta gestoriek, baiezkoa erantzun zuten. Euskadiko Kutxa, Kutxa eta La Caixa; eta Zugaztibí, Biok eta Rey gestoriek. Horiekin batera, baita Goimenek ere.

Ordiziako sei bulego hauetan, 'Hemen Errenta-aitortpena Euskaraz' dioten kartelak jarri dira, ageri-agerian, bezeroak ikus dezan.

Iazko kanpainen, Ordiziako 7 bulegotan, 1.287 errenta aitortpen egin ziren eta 356 bezero euskaraz



egin zuten. Urteik urtera, datu hori goraka doa.

Herritarrei deia

Errenta egiten duten erakundeekin harreman zuzena izateaz gain, Ordiziako Udaleko Euskaraz Zerbitzutik, eskutitz bana bidali diette, udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten 1.161 familiei. Errenta aitortpena egiteko garaian, euskaraz egin dezaten gonbidatuz.

Protokoloa

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ahalegin berezia egingo du Ogasun bulegoe-

la lautik batek

2007an, 2006. urteari zegokion 1.287 errenta aitortpen egin ziren Euskadiko Kutxan, Kutxan, La Caixan, Zugaztibin, Biok-en eta Rey-en. Horietatik 356 egin ziren euskaraz. Portzentajeari dagokionean, lautik batek baino gehiagok: %27,66.

Banketxeak /gestoriak	Euskaraz (%)
Euskadiko Kutxa	% 40
Kutxa	% 36,40
La Caixa	% 28,57
Zugaztibí	% 16,66
Biok	% 22,80
Rey	% 16

tan, euskarak bere lekua izan dezan errenta aitortpenen ere. "Urtero 350.000 aitortpen aurkezten dira Gipuzkoan, gutxi gorabehera. Baina aurrez aurre, zerga bulegoetan 100.000 baino ez dira egiten; gainerakoak gestoria edo aurrezki kutxen bidez, aurrelikidazio

bidez edo internetez egiten dira. Gaur egun Euskara Zerbitzuan dauzkagun baliabideak kontuan izanda, batez ere aurrez aurre egiten diren aitortpen horietan eragin dezakegu; denborarekin aurrelikidazioa egiteko asmoa dugu", diote Foru Aldunditik.

Lau bide daude errenta aitortpena egiteko eta lauak izan daitezke euskaraz.



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



LEIAR **KRISTALDEGIA**

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

Era honetan, Errenta Mekanizatuko bulegoetan zergadunen harremanetarako protokoloa zehaztuta dauka Foru Aldundiak. Foru Ogasuneko langileak, lehenengo hitza euskaraz egingo du. ‘Egun on’ esanez hasiko du harremana. Euskaraz erantzuten duenarekin, el-karrizketa euskaraz egingo da. Foru Ogasuneko langile hori euskaraz ondo moldatuko ez balitz, aukera eman-go lioke zergadunari aitorpena beste langile batekin egiteko. Bukaeran galdera hau egingo zaio bezeroari: “Hemendik aurrera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko harremanak zein hizkuntzatan izan nahi dituzu, euskaraz ala erdaraz?”. Zergadunak erantzundakoaren arabera, langileak programa informatikoan dagokion hizkuntza aukera markatuko du. Liki-dazio proposamena, euskaraz edo gaztelera, emango zaio zergadunari, egindako aukeraren arabera.

Harremanak euskaraz

“Hemendik aurrera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko harremanak zein hizkuntzatan izan nahi dituzu, euskaraz ala erdaraz?”. 2007an (2006ko errenta kanpainan) zerga bulegoetan galdera eginez, harremanak euskaraz nahi dituztela erantzun dutenen kopurua eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Herria	Aitorpen kopurua	Harremanak euskaraz	%
Altzaga	80	12	15
Arama	100	13	13
Ataun	870	144	16,55
Beasain	6.954	361	5,19
Ezkio-Itsaso	237	24	10,13
Gabiria	216	30	13,89
Gaintza	71	13	18,31
Idiazabal	1.245	111	8,92
Itsasondo	318	40	12,58
Lazkao	2.709	249	9,19
Legorreta	761	89	11,7
Mutiloa	124	19	15,32
Ordizia	4.747	324	6,83
Ormaiztegi	770	48	6,23
Segura	663	84	12,67
Zaldibia	796	154	19,36
Zegama	696	74	10,63
Zerain	132	22	16,67
Guztira	21.489	1.811	8,42

Lau aukera, lauak euskaraz

Autolikidazio proposamena

Zergadun batzuei etxera bidaliko diete proposamena, Foru Ogasunak eskura daukan informazioan oinarritutakoa. Proposamena ontzat ematen baduzu, bi bide daude onartzeko: telefonoz edota Internet bidez.

Euskaraz: proposamena eta eskutitza ele bietan jasoko duzu. Telefonoa erabiliz gero, euskaraz hitz egin eta Ogasuneko langileak euskaraz beteko du aitorpena; gainera, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezen nahi ote duzun galdetuko dizute. Internetez eginez gero, euskarazko aukera erabil dezakezu.

Mekanizatua

Foru Ogasuneko bulegoetan egiten da; goierritarrok Beasainen egin dezakegu. Horretarako hitzordua eskatu behar da, telefonoz (902 100 040) edo internet bidez (www.gipuzkoa.net/ogasuna).

Euskaraz: telefonoak euskara aukeratzeko bidea emango dizu, baita Interneteko atariak ere. Bulegoan euskaraz hitz

egiten baduzu, langileak euskaraz beteko du zure aitorpena; hala ere, ziur egoteko, adieraz iezaiozu aitorpena euskaraz egiteko borondatea. Bukatzeko, aurrerantzean Foru Ogasunarekin dituzun harremanak euskaraz izan daitezen nahi ote duzun galdetuko dizute.

Telematikoa

Baimenduta dauden erabiltzaileek har dezakete bide hau, eta batez ere finantza-erakundeek eta artekaritza edo aholkularitza zerbitzuek erabiltzen dute. Gune horietara gure sarrerren, gastuen, kenkarien eta abarren frogagiriak eraman eta bertako langileak arduratzen dira aitorpena egin eta bidaltzeaz. Bezero jakin batzuentzako zerbitzua izan ohi da.

Euskaraz: Ordiziaren kasuan, Euskadiko Kutxa, Kutxa eta La Caixa banketxeetan, eta Zugaztibi, Biok eta Rey aholkularitzetan egin daitezke. Espresuki adierazi beharko duzu bertan euskaraz egiteko borondatea.

Nork bere bidetik

Inprimakia nahiz CD-Roma erosita edota Internet bidez, nork bere aitorpena ere egin dezake. Estankoetan, Ogasuneko bulegoetan edo Interneten eskura daitezke euskarriak.

Euskaraz: Inprimakiak ele bietan daudenez, zeuk erabaki ahal izango duzu zein hizkuntza erabili.



Iñaki Apalategi 'Zazpi astoren gainean...' bertsoan

Bertsoa eta trikitia uztartzen ditu 'Zazpi astoren gainean...' proiektuak. Iñaki Apalategi beasaingarria, Jon Martin bertsolariarekin eta Unai eta

Ane Larreategi trikitilariak osatzen dute taldea. Aitzol Barandiaran ataundarra ere ibili izan da. Gustura dabilta, han eta hemen, giroa ona eta bertsoa zabalduz.

Oriamendi 21
Beasain
Secundino Esnaola 19
Eustasio Amilibia 11
Donostia

zein kolore nahi duzu?

www.basmodec.com

pinturak eta osagarriak
goi-mailako dekorazioa
paper pintatuak
lur estaldurak

Azkenaldian, bertsoetan, formato berriko ikuskitunak sortzen ari dira. Zuek ere 'Zazpi astoren gainean...' bertso-trikitri ikuskizuna sortu duzue.

Formato berri-berriak ez dakit diren, aurkezteko modua da diferentea. Azkenean, beti egin dena da egiten da. Silveirak eta Fredi Paiak 'Zaharra berri show' izenean saltzen zuten, baina azkenean, kalejiran bertsotan, librean aritzea zela zioten. Bakarrik, modu horretan, bestela ailegatzen ez ziren jende askorengana iritsiko zirela.

Guk egiten duguna ere horrelako zerbaite da. Trikitilarietara bertsotan kalean aritu izan garenean, normalean herriko trikitilarietara aritu izan gara eta horiek bi kopla doinu besterik ez dakizkitez, asko jota. Eta hori izugarritzako muga da bertsolarietarako: saioa ez delako aldatzen, eta gauzak ez dituzulako nahi bezala azaltzen. Beraz, guk aukeratutako trikitilarietara, lote bat bezala aurkezten gara. Trikitilari abila bat ezagutzen genuen eta harekin nahi genuen doinueta eta berrietan ere aritu gintezkeen. Azkenean, nahi genuen doinutan arituta, bai kalean, antzokian edo beste ekitaldi baten inguruan aritzen gara. Ordizian adibidez, piropo lehiaketako sari banaketan, piropoen inguruan aritu ginen. Azkenean, bertsoa da, musika pixka batekin lagunduta.

Zein berezitasun du 'Zazpi astoren gainean...' proiektuak?

Berezitasuna da, doinueta askatasun guztia daukagula. Gure artean hitz eginda egoten gara eta batera gela-

ditu gabe eta hitz egin gabe, trikitilariak badaki noiz aldatu. Bertso poteo bat ikusi duenarentzako, ez da ezer berria, baina gauzak hobeto eginda.


Orokorrean formato horretako bertso saioak, lagun arteko girokoak, arrakastatsuak izaten dira. Bertso txarrak ateratzen dira baina saio handian baino askoz gutxiagotan. Jendea giroan dagoen lekuetarako gara. Trikitilarien abileziaren arabera, jendea dantzan ere jartzen dugu. Bizkaian egon ginen iaz, Fruizen, ondoko herrian festak zirela eta, oso jende gutxi zegoen. Baina sekulako giroa jarri zuten trikitilarietara. Esan ziguten, ez zutela horrelakorik espetxo eta oso gustura gelditu ziren.

Onerako edo txarrerako, bertsolariak jendearekin zuzeneko komunikazioa dauka. Bati bertsoa botaz gero, bere erreakzioarekin, beste bertso bat botako du. Entzule horrek ez du hitz egiten, baina bere erreakzioaren arabera hitz egingo du bertsolarietara. Eta hori gustatzen zaio jendeari.

Bertsoak berak aukera asko ematen ditu. Norbaiti adarra joz, eskela baterako, plaza batean kantatzeko, ez dakit nongo presoari, alkateari... egoera diferente pilatan erabiltzen da eta ez beti, ondo erabiltza. Askotan berezko lekua dauka, eta orduan zergatik ez leku gehiagotan probatu. Balio duela demostratzen da jendearen arrakasta edukita.

Zuek ere ondo pasatzen al duzue? Zein da arrakasta izateko sekretua?

Bai, bai. Oinarri bat behar da, aurretik antzeko saioetan aritutakoa izatea. Gakoa



“Gaztetan pixka bat nabarmendu denari, aukerak izateko aukera ematen zaio”

Bertsolari gazteek plazak garesti dituztela esan izan da behin baino gehiagotan. Iñaki Apalategiren esanetan, “gaztetan pixka bat nabarmendu denari, aukerak izateko aukera ematen zaio. Ez nahi adina, baina plazatxo batzuk bai. Horiek aprobetxatu egin behar dira eta inguruarekin ere landu egin behar da. Herrian herri afariak antolatzen duenak baldin badira, normala da herri afarietan parte hartzea. Horrelakoetan, ezagutzera ematen zara eta zabaldu egiten da. Sarea egiten joaten zara pixkanaka. Irabazi egin behar dira plazak. Egia da, hasieran injustua dela, merezi baino gutxiago ematen dizkizutelako baina pazientzi pixka bat edukiz gero, maila pixka bat edukiz gero, ateratzen dira. Adin txarra, 18-20 urte dira, zalantza askoko adina izaten baita”.

Bertsolariaren dohain bat, egokitzen jakitea da.

Gakoa ez da
 teknikoki ona den
 bertsoa botatzea
 edo arrazoi
 graziosoa botatzea,
 baizik eta momentu
 guztian zein
 bideetatik joatea
 komeni den
 jakitea.

ez da teknikoki ona den bertsoa botatzea, arrazoi graziosoa botatzea... baizik eta momentu guztian zein bideetatik joatea komeni den jakitea. Gaztetxe batean ari bagara kantari eta aitona bat sartzen baldin bada, adi egon eta aitonari kantatzea. Horri kantatuz gero, bertso onak joango dira. Eta jakitea baita ere, gai hori noiz dagoen agortuta. Doinuz noiz aldatu... Hori esperientziak ematen du.

Jon Martinekin ari zara.

Beti ondo moldatu izan gara. Saio dezente egin izan ditugu bestela ere. Baina iaz Indiara joan zen eta Ataungo Aitzol Barandiarani proposatu genion eta harekin egin genituen saio batzuk. Honetarako balio ez duen bertsolaririk ez dago. Gehiago da, harreman estuagoa izan dugun bertsolariak elkartzea.

Gustura zabiltzate beraz.

Gertatu izan zaigu, gehiegi jotzen ez genuen lekuetatik deitzea. Eta hor gaizki ibili gara, baina bertsolari bat gaizki ibiliko zen bezala. Adibidez, Arrigorriagan, dantza talde baten erakustaldiaren bukaeran kantatu



Herriko festetan, plazan

Beasaingo festetako asteartean, egun osoko bertso eguna izango du Iñaki Apalategik. Herrian bertan arituko da, plazan, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Jesus Mari Irazu ondolan dituela. "Beasaingo bertsolariek, txandaka kantatzen dugu, bai festetan eta bai udazkeneko saioan. Gazteagoak ere badatoz eta haiei ere lekua egin behar zaie", azaldu du Apalategik.

"Lanak izango ditugu, bezperan ibili behar izaten da serio. Afoniko joan izan direnak ezagutu izan ditut. Ni ere behin, goizean, afoniko joan nintzen, eta arratsalderako itzuli zitzaidan ahotsa. Alde batetik oso plaza tentagarria da. Bertsolari onak etortzen dira eta plazak bere xarma dauka. Baina beste aldetik, bezperako parranda ere hor dago", gaineratu du. Egun guztian aritu beharko du bertsotan. "Udaletxeko jendearekin bazkaria egiten da egun horretan lanean aritzen direnekin. Eta bazkalostean ere kantatu egiten da. Eta iluntzean plazan ere bai".

genuen, jendea bazihoanean. Zentzurik ez zeukan gu egoteak, eta ezta Egaña eta Lizaso egoteak ere.

Bertsolaritza osasuntsu dagoelako sortzen al dira horrelako aukera berriak?

Horregatik ere bai, baina nik uste dut, bertsolariari, espresatzeko beste modu batzuk ere gustatzen zaizkiola. Izugarritzko giroa jartzen dugu. Giroaren arabera, zu ere asetuago gelditzen zara. Beste formatu batzuk aukeratu dituztenek, pentsatzen dut horretarako izango zela, esateko modu berria nahi zuten, errazago aterako zaielako edo gusturago sentituko direlako. Baina horrek ez du esan nahi, bertsolaritza tradizionalan ez dugula gozatzen. Beste giro bat sortzen da eta horrek laguntzen du barrutik beste gauza batzuk

ateratzen.

Bertsolaria aldatu egiten da eszenatokitik poteo giorora?

Bertsolariaren dohain bat, egokitzen jakitea izan behar da. Eta badaude bertsolari batzuk, antzokikoak direnak, beste batzuk txapelketakoak, beste batzuk, afarietakoak, plazakoak... eta denetako balio duten muntzuetu horiek. Hau horixe da, ingurune batera egokitutako zerbait. Guk nahiz eta kalejirarako pentsatu formatu hau, antzokietan eta barruko ekitaldietan tokatu zaigu egitea eta egia esan, arrakasta izan dute. Gu, triki poteoak kalean egiten direlako abiatu ginen, baina trikitixak hortik ateratzeko inongo arazorik ez dauka. Jendea saltza eta ziria sartzea gustatzen zaion lekuearako egokia da. Hileta batera ez gara joango, Parla-

mentura ere ez... lagunarteko sari banaketa bat denean ederki pasatzen dugu.

Lanketa bat eskatuko du aurretik. Ingurunea ezagutzea edo gaia ezagutzea.

Normalean saiatzen zara aurretik joaten, ingurunea ezagutu eta zer gertatzen den enteratzen. Baina baita ere egia da, pertsonaje asko errepikatu egiten direla herri herri. Mutil zaharren bat, futbola gustatzen zaiona... errepikatu dira.

Ordizian adibidez, piroppo lehiaketan aritu ginen. Ez genuen inor ezagutzen eta izenarekin eta botatako piropoarekin gelditu behar duzu. Hasieran, piropoak bakarrik hartu genituen gaitza baina bukaeran, saria hartzea igo zenean gorritu egin zen, zein jarrera izan zuten... jabetu eta hortik jo genuen.

Aitor eta Igor Esnaola

Zirri-zarran, trontzaren erritmoan

Legorretarrk dira Aitor eta Igor Esnaola anaiak. Trontzan aritzen dira biak eta txapel bat baino gehiago jantziak dituzte. Datorren igandean, maiatzaren 4an, herrian bertan jokatu dute Gipuzkoako txapelketa. Aitor, Gipuzkoako Herri kirol Federazioko lehendakaria ere bada eta herri kirolen errepasoa egin digu, etorkizunari, baikor begiratuz.






ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA


Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



www.txekin.net



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK
© 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 **BEASAIN**



MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 **ORDIZIA**

Noiztik zabiltzate tron-tzan?

Aitor: Ni hasi nintzela, hamar bat urte izango dira. Gazteluko Joxe Gabirondorekin hasi nintzen. Aizkoran hasi nintzen, gero bietara.

Igor: Aitorrek mina hartu zuen urtean, ni lantokiko beste batekin atera nintzen, 2001ean, lehenengo aldiz. Aitorrek mina hartu zuenean, Joxerekin.

Oraindik ibiltzen al zara aizkoran?

Aitor: Ez, duela 7 urte istripu bat izan nuen eta utzi egin nuen. 4 urte egon nintzen parte hartu gabe.

Bikoteak zer behar du?

Aitor: Joxerekin ere izugarrizko zortea izan dugu. Joxek gurekin ere bai. Hiru pertsonen artean, bikotea edozein dela ere, beti ondo. Zorte handia izan dugu, hori ez da dohainak ditugulako. Entrenatzeko joerak ere, hasieratik, antzekoak izan ditugu eta zortea izan dugu.

Elkar ulertze hori landu egiten da, edo berezkoa da...

Igor: Berezkoa ere behar da, baina hasieran beste trontzalariei begiratuta ikasi genuen. Guk egiten dugun modua al da modurik egokiena? Ez dakigu, guk horrela arrazoitzen dugu. Beste batzuek ere ez dute guk bezala egiten. Azkenean ez da egitea bakarrik. Horrela egin eta zergati bat bilatu. Jolas bat. Aberatsa.

Emaitza onak ematen dituen jolasa, ezta?

Aitor: Bai, gure kasuan bai. Eta ez irabazi egin dugulako bakarrik. Nik pertsonalki, aizkoran istripu baten ondoren lau urte egon eta berriz etorri eta trontzan egiteko aukera izatea, izugarria da.

Igor: Asko betetzen du.

Aitor: Mina hartuta egon nintzen bitartean, Joxe anaiarekin aritu zen eta ondo. Trontzaren aitzakian bizitzen duzuna, polita da.

Trontzan jende asko al zabiltzate?



Neurri ezberdinetako pago egurra

Neurri ezberdinetako pago enborra ebaki behar izaten da trontzarekin. Txapelketaren arabera, enborraren neurria aldatu egiten da. Gipuzkoako txapelketan adibidez, 1,25 metroko zirkunferentzia duen enborrari, etzanda, 12 korte egin behar zaizkio, eta egurra zutika jarrita, beste sei. Euskadiko txapelketan, lan handiagoa egin behar izaten dute: 1,40 metroko zirkunferentzia duen enborrari, 10 korte, etzanda; 1,25 metrokoari, etzanda, sei korte; eta zutika, beste sei korte.

“Neurriaren aldaketa dezentekoa da. Errespetoa eragiten du, gehiago tiratzea eskatzen du. Aldiero gehiago ebakitzen ari zara eta borroka psikologikoa handia izaten da”, diote Esnaola anaiek. Gomendio bat ere eman du Igorrek: “Neurri berdinekin ibiltzen baldin bazara entrenamenduetan, gero plazara joandakoan, neurri berdina, askoz ere sentsazio handiagoa egiten du. Etxean metro bat eta 25eko ikusten duzu eta hainbestean baina gero plazara joandakoan izugarrizko sentsazioa egiten du, tentsioagatik-edo”. “Aizkoran ere berdina gertatzen da. Egurak handiagoa ematen du. Etxean konfidantza dago eta plazan, larritasuna”, gaineratu du Aitorrek.

“Entrenamenduetan, pago egurrekin aritzea egokiagoa ikusten dute. “Entrenatzen pinuarekin ere aritu izan da jendea. Baina asko aldatzen da. Pinura ohituz gero... pagoa gogorra izaten da pinuaren aldean”, dio Igorrek. “Hasi berri-berria baldin behar bada, beharbada bai, bestela etsigarria gerta daiteke. Eta ikasterakoan ez da komeni etsitzea. Baina behin alkar hartu eta entrenatzen hasiz gero, pagoa ibili behar da eta neurrietan pixka bat handixeagoa baldin bada hobe”, gaineratu du Aitorrek.

Aitor: Gutxiago egon ziren Gipuzkoan.

Igor: Bai, txapelketarik egin gabe ere gelditu zen 2004an.

Aitor: Gutxienez hiru bikote behar dira eta bi bakarrik zeuden. Aurten adibidez bost bikote gaude. Nahiko ondo.

Jarduera bera oso ederra da. Trontza eta edozein momentutan edozein lekutan egin daiteke. Astean behin

ordubetea arituta nahikoa da. Alde horretatik ez du izugarrizko ahaleginik eskatzen.

Zailena zer izaten da?

Aitor: Hasieran ondo hastea da garrantzitsuena. Zuzen hasten ez baldin bazara, barrura edo kanpora joan zaitezke. Eta kanpora ateratzen bazara, ez du balio. Zenbat eta lodiagoa ebaki, gehiago heltzen dio. Zenbat eta meheagoa, or-

duan eta errazago joaten da. Normalean, gaur egungo trontza berriekin, normal hartzen duzu, nahi gabe korte zuzen hartzen duzu. Hasieran, kontrolatu egin behar da. Kanpora ateraz gero, nuloa da.

Zutikako enborrean, hasieran hobe da nibelean jartzea. Aritzearen poderioz lortzen da eta bestea zuzentzeko era ere ematen dizu. Tiratzeko garaian pixka bat

fijatzea nahikoa da, behera edo kanpora egiten dion, zuzentzeko.

Entrenamenduetarako, aizkora baino material gutxiago beharko duzue.

Aitor: Bai, bai, eta errazagoa da jarri eta kendu egiteko. Aizkora beti behar du neurria, garbitu, koadradilloak josi... libratzeko ere lan gehiago. Nire ustez, entrenatzeaz aparte, aizkora bada beste ofizio bat, egurra jartzea. Eta behin maila pixka bat hartuz gero, egur gehiago behar da gainera. Trontzan, beti ere, samurrago.

Trontza zaintzeak lan asko ematen al du?

Igor: Horixe ematen duela. Zorroztu egin behar izaten da, limarekin.

Aitor: Orain Igor hasi da egiten. Orain arte Cañamaresena edo Seguran, Xepeñorengana eramaten genuen. Igorrek eskua hartu dio pixka bat eta orain Igorrek egiten du.

Igor: Defenditzeko adina eh? Entrenatzeko eta, hortik aurrera ez. Nik uste dut, lehiaketan, zorroztutako trontzarekin inor ez dela aterako. Estreinatzekoarekin, edo estreinatzekoa ez bada, zorroztu gabekoa. Igual, urte batean lehiaketan ibili eta hurrengo urtean berdinarekin. Txapelketetarako zainduta, gordeta. Behin zorroztualdi bat eman ez gero, behin amustuz gero, puntua galduz gero, lehengo puntua behintzat ez da harrapatzen.

Nondik ekartzen dituzue trontzak?

Igor: Californiatik, Federazioaren bidez.

Aitor: Momentu honetan deserosoa da erraminta kontua. Azken momentuan ekartzen ditugu, hasieran zuen puntu hori harrapatzeko aukerarik ez dago. Horrek gastu handia suposatzen du. Baina ebaki er e askoz gehiago ebakitzen dute lehengoekin alderatuz. **Trontza hauek zein ez-**



Egunero entrenatzen dute Esnaolatarrek. "Iaz, Mikel Egibarrek prestatu zizkigun entrenamenduak jarraitzen ditugu. Horrek berak motibatu egiten gaitu. Momentu honetan, Algecirasko kartzelan daukate preso, 18/98 auziaren ondorioz".

berdintasun daukate?

Igor: Beste diseinu bat daukate.

Aitor: Lehengoena, "hortz amerikarra" deitzen zitzaiena zen, eta antzekoa da, baina hortik iritsi dira oraingo diseinuetara. Gehiago pasatzen du. Baina aldi berean oso konplikatu da, zorrozteko-eta. Lehen samurragoa zen.

Igor: Lehen ere berdin izaten zen, txapelketan ateratzeko, zorroztu gabeko trontza erabiltzen zen normalean. Hauen aurretik australiarrak erabiltzen genituen.

Aizkorak ere Australiatik ekartzen dituzte.

Aitor: Aizkorak hangoek edo hemengoek, prezioan ez daukate mila diferentzia

eta kalitatea askoz ere hobea da australiarra. Trontzatan gertatzen dena da, hemen ez dagoela. Jendea ari saiatzeko hango diseinu berdinarekin egiten, baina ez da lortu. Han dena mekanizatuta dago baina hemen dena eskuz egiten da.

Igor: Trontza bera ikusita, konplikazio handirik ez du izango mekanizatzeke. Programa hori ateratzen nor hasten den da kontua. Hau egin beharko luke baten batek, guk trontza hartu dugun bezala, afizio bezala hartuta.

Aitor: Atzetik izugarrizko eskea balego... Inork interes pixka bat jarriko balu honetan, di-da batean asmatuko luke, gaur egunean dena asmatuta dago-eta.

Aitor: Programa hori lortu arte, burua hautsi beharko luke, gasturen bat ere egin beharko luke, baina behin hori lortuta...

18 trontza dauzkagu eskatuta txapelketetarako. 12-15 bikote inguruan ibiltzen da. Eta trontza bakoitza, 1.200 euro inguru kostatzen da.

Eztabaida ere badago, trontza hori kendu egin behar dela eta ez dela. Baina gaur egun askoz ere ebakitzeta eta hobea izatea lortu denean, garestiagoa delako kendu behar al dugu? Pentsa dezagun hemengo lehengo trontzekin aritu nahi dugula, baina hemen non daude trontzak? Ez dago. Segarekin ere bergin gertatu da.

Herri kiroletan joera handia dago, gastuari buruz hitz egiteko. Baina guk badakigu zergatik sartu garen hemen. Guk badakigu gastu bat dagoela eta onartu egiten dugu. Amorrazio handia ematen dit. Baina gaur egun hemen dena horrela dago: batek gauza bat aukeratzeko du, eta gordinki, denari aurre egin beharra dauka. Beste kirol batzuetan erakundearen dirulaguntzak izaten dira baina gu ez gara horretara iritsi. Egunen batean espero dugu baino...

Bakoitzak norbere poltsikotik jartzen duela alegia.

Aitor: Aldi berean, hobby bat bihurtzen da eta gozatu egiten duzu.

Igor: Bizitzen baduzu, bete ere asko egiten du. Trontzan ari garela edozeini esanda, burutik sano ez gaudela esaten digute. Baina hemen denetarik dago.

Aitor: Batzuk 9.000 euroko bizikleta erosten dute, asteburuan ibiltzeko. Harek, mereziko duelako erosi du. Baina normalean haiek ez dira kexatzen, bizikletak garesti daudelako. Baina nik ez dakit zergatik, herri kiro-lariak badu joera bat, kexatzeko.

Trontza edozein momentutan eta edozein lekutan egin daiteke.

Gipuzkoako txapelketa, herrian

Maiatzaren 4an, arratsaldeko 4,30etan, Gipuzkoako Trontza txapelketa jokatu da Legorretako Harripila kiroldegian. Esnaola anaiez gain, beste bikote hauek ere arituko dira: Arkaitz Egaña – Aitor Idueta; Jokin Garmendia – Unai Iraola; Josu Larrañaga – Unai Salegi; eta Andoni Rezabal – Aitor Roteta. Egin beharreko lana: 12 korte etzanda eta 6 korte zutika, 54 ontzako pago egurrezko enberrari.

Txapelketa herrian jokatzeari, abantaila izango al da?

Aitor: Ni herrian ez naiz sekula txapelketan aritu. Igor bai.

Igor: Urtebetean bai. Ondo atera zen, baina...

Txapelik irabazteko aukerarik ba al daukazu?

Aitor: Txapela irabazten badugu, oso ondo. Aukerak, batzuk badiugu, baina besteak ere ari dira. Eta gu entrenamenduetan ez gabiltzala oso fin.

Igor: Saiatuko gara irabazten baina besteen erreferentziarik ez dugu izaten, urtean ez dugu beste saiorik izaten eta.

Gipuzkoakoa irabaziz gero Euskadikora sailkatuko al zarete?

Aitor: Ez dauka zerikusirik orain. Lehen bi lehenak joaten ziren Euskadikora. Baina aurten dena aldatuko da. Espero dugu Euskal Herriko txapelketa lehenengo aldiz izatea. Iaz egin zen bezala egitea espero dugu: kanporaketa bat, aurreneko seiak lehenengo mailara eta beste seiak bigarren mailara. 13 bikote izan ginen iaz, eta Iparraldekoak ez ziren etorri.



Lagunarteko apusturen bat egiteko asmorik ez...

Ez dago ohiturarik trontzan apustuak egiteko. Lehen egin ziren baina! Gure izakera ere ez da apustu girokoa.

Apustuek laguntzen al diote herri kirolari?

Bai lagundu bai. Baina apustu asko egin dira hor bidean, interes bat eta bakarra: sarreretako dirua banatu eta kitto. Egia da apustu batzuk egiten ari direla eta jendea erakartzen duela. Baina apustuari arriskua ikusten diot. Tartean dirua egoten da askotan. 80.en hamarkadan egin ziren apustuak, 15 eguneko tartean, aizkolari berak, bi apustu eginez... Hori gehiegi da. Dena dirua jokatzegatik da, etekina berak jasotzegatik. Garai hartan asko erre zuten.

Trontzan zerbait nobedoso sortu eta zuek animatu beharko zarete.


Duela bi urte zirikatzen aritu zitzaizkigun. Segan eta trontzan, hiru hiruen aurka. Egingo genuela esan genuen, baldintza batekin, sarrera libre.

**euler**
bombas sumergibles

Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Aitor Esnaola, Gipuzkoako Herri Kirol federazioko lehendakaria

Anaietan zaharrena, Aitor, Gipuzkoako Herri Kirol federazioko lehendakaria da. Gipuzkoako zein Euskal Herriko herri kirolen egoera barru-barrutik ezagutzen du. Berak atera du gaia, Euskadiko txapelketa aipatu dugunean.

Arazoren bat baduzue aurten, Euskadiko trontza txapelketetarako.

Aurreko astean bilera bat izan genuen Jaurilaritzan, eta uff... Orain arte Euskadiko Federazioaren eta Nafarroako Federazioaren artean barne akordio bat eginda dago, txapelketetan elkarrekin aritzeko, bai antolatzen, kirolari guztiak parte hartuz. Euskadiko fitxa ateratzen dute. Jaurilaritzakoekin egin genuen bileran esan ziguten, Kirol Legearen arabera, nafarrak hemengo fitxarrik ezin dutela atera. Eskatzen ari direna da, lehenengo mailako aizkolarietatik nafar guztiak kentzea. Nafarroak izugarritzko indarra dauka herri kirolean. Esan genien, ez genuela uste harrokeriz Euskadi ezer planteatzeko egoeran dagoenik. Nafarroan hiru-lau egongo balira eta gonbidatu gisara ekarri, baina orokorrean askoz ere maila hobe dago Nafarroan. Federazio mailan eztabaida sortu dugu. Honen behartuko du konfederazio edo elkarte bat sortzea... Ez zait iruditzen herri kirolean bakoitza bere aldetik ibiltzeko egoeran gaudenik, jende guxtiago dago.

Arazoa konpontzeko helburua jar dezagun. Euskal Herriko herri kirol federazio bat sortze da helburua. Ez dakit federazioa izango den, elkarte, konfederazioa... Bertsozale Elkarte hor dago, Ikastolen Konfederazioa dago. Aukera asko egin daitezke. Ho-

rretarako legea oztipoa zela esan zuen Jose Ramon Garaik. Ados gaude, aldatu legea. Hori ezetz esan zuen. Beti Nafarroako Gobernua aipatzen dute, baina eurei hemengoa dagokie. Helburuak marraztu ditugu, arazoa dektatu dugu, zailena egin dugu... beharrezkoena egin dugu, orain pausoak ematea da. Uste dut oso eztabaida interesgarria etor daitekeela.

Momentu honetan, zein da herri kirolen egoera?

Orokorrean nik uste hondoa jo duela. Urte askotan Federazioaren helburu bakarra, txapelketak antolatzea izan da. Urte batzuk egon dira eskola mailan batere lanik egin ez dena. Hutsune handia dago. Hasita gaude eskola programekin. Proiektua eginda dago. Futbol eskola, pilota eskola... dauden bezala herri kirol eskola. Horrek egitura-tzea eskatuko du. Irizpide batzuk jartzeko saiatzen gara. Urte batzuk eman dira, norabide gabe baina gaur egun nahiko definituta dago, mailaz maila zein joko zein jolas egin.

Zer planteatzen duzue?

Jarduera erakutsi behar zaie. Lasai asko jarri daiteke, egurrezko aparatu bat, ezer ebakitzen ez duena hasiera batean... gimnasia bat egiten duzu eta lehenengo harreman bat izan duzu. Helburua da gero, aurrerago trontza hartzea. Aizkoraren orde, aizkora kirtena daukan mazo antzeko bat prestatu liteke. Jolas horiek denak asmatuta daude. Kontua da onartzea, batez ere Foru Aldundiak. Baina betikoa da, Aldundiak, txapelketa eskatzen du.

Herri kirola, orokorrean dago egoera larrian, edo modaliteren bat badago hobeto...

18 modalitate daude herri kirolean eta

herri kirolean kirol erregeak, aizkora, sokatira, sega eta harria dira.

Kirol bakoitzaren barruan, maila ezberdinak ere badaude.

Modalitateak galtzea ere lastima da. Ezin da modalitate guztiak indartsu eduki, baina harri jasotzearen egoera on batetik datoz, harri handia eta harri txikia. Aldaketak planteatzen dituzunean, denak gainera etortzen zaizkizu. Oso poliki joan behar da. Herri kirolean gabiltzanak, normalean, oso itxiak gara. Hau beti horrela izan da eta horrela egin behar da.

Entrenatzeko joera ere bakarkakoa izan da. Gu entrenatzen gure etxean ari gara, inorekin ez dugu entrenamendua konpartitzen. Ez daukagu guzterik ere. Bertsolaritzan, bertso eskolak daude, eta giro bat dago, talde bat dago. Ez da hain ezkutuko kirola bihurtzen.

Komunikabideek laguntzen al dute?

Gehiena aizkora ematen dute. Enpresa pribatu bat da, Egur Sport, Urrezko Aizkora ematen dute telebistan eta ematen du herri kirolen alde izugarritzko lana egiten ari direla. Guk izan ditugun harremanetan, oso jarrera txarra aurkitu dugu. Euskal Herriko trontza txapelketa zuzenean emateko eskatzera joan eta bilera bat eskatzea bakarrik harrigarria iruditu zaie.

Kazetarien aldetik, ezezagutza ere badago. Izugarritzko astakeriak botatzen dituzte. Arriaren semea beti faboritoa izaten da. Trontzari buruz ere, urtean bi aldiz hitz egingo dute. Eta faborito beti, Esnaolatarrak. Baina ez dakite gure berri, gaixo bagaude ere, edo utzi badugu ere. Kubritzeko adina egiten dute kitto.

Erdi Aroko Igartza eta jabetza aldaketaren errituala

Jauregi bihurtu baino lehen, dorrea izan zen Igartza. Beraz, Erdi Aroan betetzen zuen zereginak nolabaiteko kutsu militarra zuen. Gure aurrekoek balio estrategiko handiko gunetzat jotzen zuten Igartza. Toki horri buruz topatu dugun agiririk zaharrenak, 1340koa, Gipuzkoan zehar orientabideztzat erabiltzen duen gakoa, Igartzako zubia da, esate baterako.

Hori dela eta, Ahaide Nagusien gerrateen garaian Igartzak hartzen duen garrantziak, ez gaitu harritu behar. Azken finean, horrelako egoera larrietan garrantzitsua izateko eraikia izan zen eta.

XV. mendearen hasieran (1420. urteaz geroztik edo), Igartzan bizi izandako borroka-adibide ederra dugu. Lazkaoko Jaunaren alboan topatzen dugu beti gure Igartza. Alabaina, Lope Gartzia Loiolako eta Joan Lopez Igartzako, Lazkaotarren Nagusi zen Joan Lopez Lazkaokoren buruzagitza zalan-tzan jartzen ausartu ziren. Joan Lopezen erantzuna berehalakoa izan zen: denen etsai zen Ladron Baldakorekin bat eginez, Loiolako etxea inguratu eta bonbardez eraso zion!. Bonbardak —ala lonbardak— harrizarrak jaurtitzen zituzten aho zabaleko kanoiak dira. Dena den, kanoikada horiek ez zioten kalte gehiegi egin Loiolako horma sendoari. Orduan, eraso Igartzaren aurka zuzendu zuten.

Jauregi bihurtu baino lehen,
dorrea izan zen Igartza.



Garai berrietara egokituz

Beasaingo Igartza multzoa, berrituz eta egokituz ari dira Beasaingo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia, pixkanaka-pixkanaka. Jauregiaren eta Dolarearen txanda da oraingotan.

Igartza jauregiari dagokionean, 2010. urterako lanak bukatuta egotea aurreikusten da. 200 lagunentzako kongresu-jauregia egingo dute bertan. Goierrin, ezaugarri horietako lehenengoa izango da. Lehenengo fasean, zimenduak, hormak, egurrezko egitura eta estaldura sendotuko dira. Bigarren fasean, eraikinaren barrualdearen eta dekorazioaren txanda izango da.

Dolarean berriz, aintzinako ostatuan, lau izarreko hotela eta jatetxea egingo dituzte. Dolareko lanak ere, 2010. urterako amaitzea espero da. Hotelak 20 bat gela izango ditu, kafetegiarekin eta jatetxearekin batera. 2007. urtean, Dolarea zaharberritzen hasi zirenean, XVI. mende hasieran desagertutako sagardoa egiteko dolarearen hondarrak aurkitu zituzten. Aranzadi Zientzia Elkarteak kideek egin zuten aurkikuntza.

Orduko kronikagileen arabera, Igartzako hormek ez zioten erasoari eutsi, eta egun hartan hildako asko suertatu ziren.

Hori gutxi bailitzan, 1456an Gaztelako erregeak, Enrike IV.ak, dorretxeek zi-

tuzten gerrarako osagai guztiak birrintzea agindu zuen. Dorretxeak guztiz eraldatu eta berreraiki behar izan ziren. Ahaide Nagusien garaia zen egin zuenaren seinale.

Orduko Igartzako Jaunak, Martin Perez Altzagakok, ez zuen gogo onez onartu suntsiketa hura. Hori zela eta, Gaztelako Koroarekiko harremanak eten eta Nafarroako erregearen babespean bere burua jarrita, hainbat urtez, Gaztelaren

aurka aritu zen.

Halere, 1475. urtean, atzerako bidea egin zuen eta Gaztelako Erregearekin bakeak eginda, Igartzako multzoa berriro martxan jarri zuen.

Igartzak bizimodu berri bati aurre egin behar izan zion. Horregatik, Igartzako Jaun-Andereek, gotorlekua berriztatu beharrean, XVI. mendeko jauregi bat eraiki zuten, egun ikusten dugun jauregi berbera hain zuten.

Iturria: www.igartza.net

Jabetza aldaketaren errituala

Igartzako Jaun/Andereen boterea osatzeko, ezinbestekoa izan zuten beren inguruan hainbat zerbitzu biltzea. Burdinola eta errota ez ezik, apalagoak diruditen baina nekazaritza-gizartean oinarritzakoak ziren beste lan batzuk ere antolatzen ziren Igartzan. Horregatik, Jauregiaren inguruan, etxe bereziak azaltzen dira. Etxe horien izenak, aski adierazgarriak dira eta bertan gauzatzen ziren zereginen berri zehatza ematen digute: Usategi, Zapatari, Errementari, Dolarea.

Igartzako arduradunak hil ondoren, beren ondorengoei zegokien jabetza gauzatzea. Horretarako, erritual ikusgarri bat antzezten da, non eta keinu bakoitzak esanahi zehatz eta sakona duen.

Jabetza eskuratzen zuen Jaunak edo Andereak edota herriek izendatzen zuten ahalordeak, Igartzako multzoa osatzen zuten etxe eta eraikin guztiak bisitatu behar zituen, Jaun/Andere eta Jabe zela adierazteko.

Jauregian, adibidez, Jaun/Andere berriak zerbitzariak kanporatu eta ate zein leiho guztiak itxi egiten zituen. Zertxobait beranduago, inork txintik esan gabe, berriro dena ireki eta jabetza aldarrikatzen zuen. Gero, zerbitzariak eta maizterrak, eskutik heldu eta berriro etxeratzen zituen, haiek, aldeztu aurretik, Jaun-Andereekiko menpekotasuna aitortuta.

Burdinolari dagokionez, martxan zegoenean sartu egiten zen. Burdina sutan zegoela, eraikina goitik behera zeharkatzen zuen. Gero, hauspoak eta gabikoa eragiten zituen, uraren emaria eten eta langileak kanporatzen zituen. Bakarrik zegoenean, uraren bidea ireki eta langileak berriro onartzen zituen.

Igartzako ospitaleko ate guztiak ere itxi egiten zituen. Etxe hartaz arduratzen zen ospitaleazainari bertan jarraitu nahi zuen galdetzen zion eta hark baietza eman ondoren, zaintza horretan segitzeko berresten zuen.

Gero, Beasaingo elizan, Igartzari zegozkion eserlekuak eta kapilautza bisitatzen zituen eta horrekin batera Etxeari zor zitzaizkion lehentasunak aldarrikatzen zituen. Eserlekua, gainera, gainerako auzokideena baino altuago egoten zen, Ebanjelio aldean.

Azkenik, Igartzara itzuli eta Dolare-etxeaz jabetzen zen, maizterra kaleratu eta etxea itxi ondoren, etxea ireki eta maizterra bertan sartzen zen eskutik helduta.



Goitik behera, Dolarea, errota eta Belengo Andra Mariaren kapea.

Jabetza eskuratzen zuenak, Igartzako multzoa osatzen zuten etxe eta eraikin guztiak bisitatu behar zituen.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Idiazabal

XI. Gazta eguna, maiatzaren 4an

Maiatzak 2, ostirala:

18:00etan: IX. Mami lehiaketa. Jubilatuen Elkarteak.

19:00etan: Hitzaldia: 'Jatorrizko abeltzantza eta nekezaritzza ekologikoaren adibidea' Menorkako Mahongo gaztagilearen partaidetzarekin Onofre Cuadrado Jn. Pilarranean.

Maiatzak 3, larunbata:

22:00etan: 'Aspaldikotik' Oinkari dantza taldearen ikuskizuna. Sarrera 6 euro. Igarondo pilotalekuan. (Aldez aurretik Izparren egongo dira salgai).

Maiatzak 4, igandea, XI. Gazta Eguna:

10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.

11:30ean: Gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.

13:00etan: Omenaldia artzai izandako Luziano Aranburu jaunari.

13:30ean: Sari banaketak: postu dotoreenari eta gazta onenari.



Arratsaldean: Urrezko aizkoraren kanporaketa.

Ondoren: txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

Oharrak: Gazta eta mami dastatzeko aukera izango da. Gazta onena sarituko da, jendearen iritzia kontutan hartuta. Artzaien postu dotoreena sarituko da. Gaztaia ketzen ikusteko aukera egongo da. Autobusa jarriko da aparlekuetatik herrira.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045

Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

Pottoka

KAFETEGIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogartartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

XI. gazta eguna

2008ko
maiatzak 4 igandea



10:00etan: Artzainek postuak irekiko dituzte.
11:00etan: Herriko artzainak gazta egiten hasiko dira era zahar eta modernoan.
11:30ean: gazta ketzen eta ardi mozte ikuskizuna, eskuz eta makinaz.
13:00ean: Omenaldia Luziano Aranburu artzaiari.

13:30ean: Sari banaketak, postu dotoreenari eta gazta onenari.
Oharrak: Autobusa ibiliko da herrira joan-etorria aintzeko. Zerbizua dohain izango da.
Goizean zehar mami dastatzeko aukera egongo da.
Arratsaldean: Urrezko aizkoraren kanporaketa.
Ondoren, txaranga ibiliko da herriko kaleetan.

idiazabal



Gipuzkoako
Foru Aldundia



kutxa



Legorreta

Azintzio festen azken txanpa

Maiatzak 2, ostirala:

10:30ean: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleekin.

11:00etatik 13:00etara: 'Haur Jolasak' Harripila Kiroldegian. Monitorea izango dira eta herriko nahiz kanpoko haur guztiek parte har dezakete.

12:30ean: Pote, Igel, eta Toka Txapelketa Herriko Jubilatuen artean.

14:30ean: Herri Bazkaria Bilkoin K.K.E.-n 'Txortains' Taldeak alaitua.

15:00etatik 17:00etara: 'Haur Jolasak' Harripila Kiroldegian.

19:00etan: Haurrentzako Play Back Saioa.

23:30ean: Helduentzako Play Back Saioa.

01:00etan: Mulanbo perkusio taldeak Legorretako kaleak alaituko ditu.

Maiatzak 3, larunbata:

10:30etan: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleen eskutik.

13:00etatik 24:00etara: Mozorro eguna: "Zinema"-ren inguruko Mozorro Eguna.

13:00etan: Herriko XXVI. Paella Txapelketa "Iraunkorrek" Txarangak alaitua. 14:30ean amaitzen da aurkezteko epea.

14:30ean: Lagunarteko Herri Bazkaria plazan txarangak alaitua.

23:30etik 03:30era: Dantzaldia 'Besterik gabe' taldearen eskutik. **01:30ean:** Mozorro Lehiaketaren sari banaketa.

Maiatzak 4, igandea:

10:30ean: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasleen eskutik. Jarraian, 14:30ak arte, kalejira Solano Musika Eskolako ikasleen eskutik.

18:00etan: Kalejira 'Iraunkorrek' txarangarekin.

18:30ean: Herri Kirolak Harripila kiroldegian: Gipuzkoako Trontza eta Lasto-Altzatze txapelketak.

Trontzalarriak: Arkaitz Egaña – Aitor Idueta, Aitor Esnaola – Igor Esnaola, Jokin Garmendia – Unai Iraola, Josu Larrañaga – Unai Salegi eta Andoni Rezabal – Aitor Roteta.

Lasto-Altzatzaileak: Candido Aizpurua Ipinza, Peio Argaia Eizmendi, Gotzon Arrieta Pagoaga, Patxi Ituarte Salegi eta Javier Urresti Quinteiro.

20:30ean: Gizon Pikuaren ehorzketa.

Olaberria

Santa Kutz jaia

Maiatzaren 3an, Santa Kutz jaia ospatuko da Olaberrin. Egun osoko festa antolatu dute olaberritarrek:

11:00etan: Prozesioa, plazatik ermitaraino, trikitilarien laguntzarekin. Han bertan, eta Kuttun Elkartearen III. urteurrena ospatuz, Karmen Elizegik urtean zehar jaio diren haurrei kuttun bana emango die. Ondoren, haurrek globo mezudunak askatuko dituzte.

12:00etan: Meza Santa Kutz ermitan, Zeba abesbatzak lagunduta. Eta ondoren, Udalak eskainitako hamaiketako Zezilionean.

16:00etan: Jolas tradizionalak herriko plazan haur guztientzat Kuttun Elkartek antolatuta, eta ondoren txokolate jana Zezilionean.

Haur eta gaztetxoentzat eskulan tailerrak ere izango dira, Kometa ludotekaren eskutik.

19:00etan: Poxpolo eta Mokolo pailazoen emanaldia, Kutxaren kultur eskaintzaren barnean.

Lazkao

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 3, larunbata:

16:00etan: XXXII. Lazkaomendiko gazteen txirrindulari proba.

16:45ean: 'Mendiari so' pailazoak.

18:00etan: Txirrindulari probako sari banaketa.

19:30ean: Laja eta Mikel trikitilarien emanaldia.

21:00etan: Auzo afaria.

23:00etan: Erromeria Laja eta Mikel trikitilariekin.

Maiatzak 4, igandea:

9:00etan: Mendi ibilaldia Lazkaoendira. Irteera plaza-tik.

11:00etan: Meza Nagusia, San Juan Ante Portan Latinam ermitan, udal agintariak bertan direla.

12:00etan: Haur jokoak.

13:00etan: Zeberio eta Mañukorta bertsolarien saioa eta Elustondo anai-arreben trikitixa saioa.

17:00etan: Gizon proba: Lazkaomendiko taldea abereen aurka. Ondoren, asto karrera.

19:00etan: Zeberio eta Mañukortaren bertso saioa.

20:00etan: Elustondo anai-arreben bigarren trikitixa saioa.



GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK

San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA



Zegama

Arantzazura erromesaldia

Maiatza 11, igandea:

8:00etan: Arantzazurako lehen irteera autobusez Apeaderoraino.

9:00etan: 2. irteera autobusez Apeaderoraino.

10:00etan: 3. irteera autobusez Apeaderoraino.

13:00-13:30ak aldera bazkaria Udalak eskainita.

17:00ak aldera: Erromesen azken txanpa Arantzazuraino.

17:00etan: Kooperatiba aurretik Arantzazura autobusa izango da garai horretan joan nahi duenarentzat.

20:00etan: Errosarioa Santutegian.

20:00etan: Autobusa Zegamara.

21:00etan: Afaria.

Maiatza 12, astelehena:

8:00etan: Autobusa Zegamatik Arantzazura.

10:15ean: Goiko Bentan herritarrek elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin.

10:30ean: Meza.

Ondoren, Santutegi aurrean, bertaratutako zegamar guztiek elkarrekin argazki bat aterako dute, aurrekoen usadioa berreskuratuz.

13:30ean: Bazkaria.

15:00etan: Zegamara oinez datozenen irteera.

16:30ean: Zegamara autobusez itzuliko direnentzat irteera.

18:00etan: Merienda Oazurtzen Udalak eskainita.

19:00etan: Oinez datozenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak.

19:15ean: Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta bere ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parrokiaren Agurra (Salbea) bertaratuei.

Ondoren, Kasinoko XX. Ipuin lehiaketaren sari banaketa plazan.

19:30ean: Otarteko eta ardo banaketa udal arkupeetan.

21:00etan: Afaria Udaletxeko arkupeetan trikitilariekin.

Izen emateak, maiatzaren 5etik 8ra egingo dira. Herriaren erroldatuek lehenetasa izango dute.

Ordizia

Makillaje ikastaroa

Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Hitzaro Euskara Elkarteak makillaje ikastaroa antolatu dute herriko gazteei begira, aurreko urtean emandako makillaje ikastaroa erabat arrakastatsua gertatu zela-eta. Azalari dagokion zaintzak ikastea eta, makillaje teknika egokierkin, aurpegia sanoago eta politago edukitzen ikastea izango du helburu ikastaroak.

Hamar orduko ikastaroa izango da: maiatzaren 15, 22 eta 29an, eta ekainaren 5ean eta 12an, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroan izena emateko epea maiatzaren 9an amaituko da. Izen-emateko orria e-postaz eskura daiteke, Hitzarora (943 16 23 66) edota Euskara Zerbitzura (943 80 56 22) deituta, edota Herritarren Arretarako Udal Bulegoan (kale Nagusia 26). 30 euroko matrikula ordaindu beharko du izena ematen duenak.

Beasain

Pazko jaia Astigarretan

Maiatzaren 11n ospatuko dute Pazko jaia Astigarretan.

11:30ean: Meza nagusia. Beasaingo San Martin Parrokiako koruak abestuta.

12:15ean: Ikaztegiako dantza taldea.

13:30ean: Herri bazkaria 'Astauzel' elkartean.

Bazkaria eta ondorengo orduak Laja II eta Narbeiza trikitilariek eta Zeberio, Ekaitz Goikoetxea eta Mañu-korta bertsolariek alaituko dituzte.

Altzaga

Altzagarateko erromeria

Maiatzaren 4an, igandea, ospatuko da Altzagarateko erromeria. Eguerdiko 12,15etako Meza Nagusiaren ondoren egunean zehar Zabale, Larrañaga eta Mendizabal trikitilari eta bertsolariak izango dira.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak


IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritzatza, Injeniaritzatza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34 Tel 943 881 944 Ordizia	Oskarbi Oinetakoak Sekundino Esnadila 8 Tel 943 721 978 Zumarraga
Oskarbi Oinetakoak Nagusia 34 Tel 943 884 104 Beasain	Oskarbi Oinetakoak Erdiko Kallu Tel 943 711 804 Arrasate

O



ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Baserria hartuko genuke errentan, bi lagunek. 656703814.

salgai

Beasain. Apartamentu erdi berritua salgai. Nafarroa Etorbidean, tren geltoki ondoan. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, bainugela, igogailua. Gas naturala leihoraino. 656794775 - 943160479.

Beasain. 4 logelako etxebizitzak salgai, oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. 240.000 euroz azpitik etxebizitzak salgai. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Beasain. 80 m²ko etxebizitza

salgai. Igogailuarekin. 216.400. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Goierri. Baserria salgai, 7 Hako lursailekin. Aukera asko eskaintzen ditu. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Lazkao. Pisua salgai. 6 urteko eraikuntza. 2 logela, egongela, sukaldea eta komun handia. Trastelekua. 661221252.

Ordizia. Atikoa salgai, Torresolen. 617566744.

Ordizia. Egokitutako 50 m²ko etxebizitza salgai, erdigunean. Aukera ona. 180.000 euro. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Zegama. 3 logelako etxebizitza salgai. Berogailua. Argitsua. Erdigunean. INMO F3 BEASAIN. 943164936 - 629417171.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,65 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

LANA

eskaerak

Ordizian neska bat behar da etxeko garbiketarako egiteko eta noizbehinka haurrak zaintzeko. Orduka. 943887679. 19:00etatik aurrera deitu.

Promotorak behar dira supermerkaturak lan egiteko. Curriculumak Donostiako 3229 posta kutxara.

Bi langile behar dira Beasaingo Arrano tabernarako; sukalderako eta barrarako. 943887447.

Beasain erdiguneko jatetxe baterako zerbitzaria behar da. 609531484.

eskaintzak

Emakumea eskaintzen da kotxearekin. Garbiketa lanerako edo peoi industrial bezala. 687795557.

Mutila eskaintzen da ostalaritza lanetarako. 664165103.

Neska orduka lan egiteko prest. Umeak eta adinduak zaintzen eta garbitzen. 606722876.

GARAJEAK

salgai

Beasainen, garaje itxia salgai. 637211107.

ANIMALIAK

opari

Martxoaren 9an jaiotako 4 txakurkume polit-polit oparitzen dira. Ama setterra eta aita golden retriever. 605744303.

BESTELAKOAK

salgai

Jane markako hurrentzako gurgildun aulki bikoitza salgai (eserleku bat bestearen atzean). 9 hilabetez erabilia. Prezio interesgarria. 610047505.

IBILGAILUAK

salgai

Renault Laguna Gran Tour, 1.900 dci, 120 zaldi. 115.000 kilometro. 2001ekoa. Extrekin. 10.000 euro. 652749913



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS. 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Gure helburua,
zure ongizatea.



XVHAI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Kale Nagusia 6, Idiazabal 943 18 74 94
xuhaifisioterapia@gmail.com



Goierritarra

943 16 00 56 goierritarra@goierrikohitza.info



Jaunartzeak Ormaiztegin 1941-5-22an

Ezkerretik eskuinera: Salvador Elorza (Aranburu txiki), Pepita Apaolaza, Mari Karmen Garmendia Iza, Arantxa Lasa, Anttoni Irazu, Maria Luisa Rezusta (Mekola), Itziar Telleria, Florita Eskisabel (Lapatza), Karmen Murua Argietxe eta Asensio Sarasola Garmendia (Arostegi). **Atzean:** Jeronimo Sarriegi (apaiza).

Autowag



☎ 943 888 254


☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

IBAI ONDO



AROSZTEGIA

Altzariak neurritara

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47

Antzizar-Katea, 5

BEASAIN

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

IÑAKI ARIN

aseguruvak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN



Txindoki-Alkartasuna
Instituta



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Batxilergo guztien kalitatezko eskaintza

ARTE BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:
Arte Ederak
Kus-entzuneko komunikazioa
Industri diseinuko injenerutza teknika
Publizitatea...

Goimailako lanbide Heziketa:
Irudia
Kus-entzuneko ekizpena
Diseinu eta ekizpen editoriala
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:
Ekonomiak
Ekonomikoa
Administrazio eta enpresa
Humanitate-entresa
Zuzenbidea
Filologia eta Irizipenigintza
Geografia, Historia...

Goimailako Lanbide Heziketa:
Administratza
Merkatatza eta Marketing
Ostentatza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

BATXILERGO ELEANIZTUNA: ikasgai batzuk ingelesez

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:
Medikuntza
Erzaintza
Aralarritza
Psikiatripeua
Kriminologia
Matematika
Injenerutza
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:
Injenerumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazari jarduerak...

Unibertsitateko ibilbidea:
Injenerutza
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goimailako Lanbide Heziketa:
Fabrikazio mekanika
Produktzio zerbitzu eta Mantenimendua
Elektrizitate eta elektronika
Egura eta altzarak
Automozioa...

matrikula epea: maiatzaren 7tik 9ra

Ugartemendi, 6. 20200 Beasain www.txindokialkartasuna.net



Goierri Lanbide Eskola
la granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2008-2009 eskaintza

Zurekin etorkizuna landuz

BATXILERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknologikoa

Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik

LANBIDE-HEZIKETA

Goi mailako zikloak:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Lanbide hastapenak:

- Autoen mekanika, Iturgintza, Txapa eta pintura, Sukaldaritza

Lan praktikak eta lan burtsa: Laneratze tasa %95



Aurre inskripzioak: - Batxilergoa: Maiatzaren 5etik 9ra.
- Zikloak: Ekainaren 2 ik 13ra.

Ate irekien eguna: - Maiatzak 17 goizeko 9etatik 12,30etara.

